



GOI MENDITAN ZE HAR

Antxon Narbaiza

GERO

KIMU saila

Oraintxe argitaratu du GERO argitaldariak, KIMU SAILA izeneko taldean Antxon Narbaizaren liburu bat GOI MENDITAN ZEHAR deitua.

Euskara garbi batetan idatzia, Pyrenaikaren eibartar laguntzaile hau (101 gna -Eskaladako hiztegia, 102 gna- Irudipenaren billa) goi menditzari buruzka gaiak gogoratzen ditu. Mendiari buruz eta menditzari buruz dihardu lehenik, goi menditzaren garaipen nagusienak kontatzen joateko gero eta jardun ekologitzaz, landaretzaz, faunatzaz eta mendien be-rezitasunaz. Liburuaren bigarren alde euskal goi menditzaren kondaira labur bat da, sortzaileetatik hasita: Bandrés, Ojanguren, Sopena, Ferrer, Apraiz, Peña, Etxebarrieta, Espinosa heltzean geldituz. 1967 an Peruko Andesetara egindako euskal igokundeari zati bat dedikatzen dio eta gero Tximist taldeak Everestera egindako joatearen azalpen bat ematen du. Mendi literaturaren kapitulo batekin eta hiru hizkuntzako hiztegi batekin amaitzen du liburua.

GOI MENDITAN ZEHAR liburuaren azken burua, «Natura eta idaz-leak» izeneko, idaletzaz asi da, izaditzaz eta batez ere menditzaz. Literatura klasikoren izen ezagun batzuk oritatzen dituelarik guretzat maitagarriak direnak Saint-Exupery, Neruda eta Hesse, euskal literatur klasi-koaren izenak dakartza ondoren: Arrese, Etxahun, Elisanburu, Iparragi-rre, Agirre, Orixe, Lizardi... Azalpen txiki honek galdera hau dakarkigu: Zer idatzi da euskaraz goi menditzaz?

Oso gutxi uste dugu. Beste literaturetatik ez da hitzulpenik egin eta hemen oso gutxi egin da. Gure uste hau egiztatzeko euskal bi zabalkunde ezagunenetara zuzenduko gara: San Miguel (Prim, 41-3.º ezk. Bilbo, 6) eta IKER (Zabalbide, 68, Eskb. Bilbo, 6), Ion Bilbaoren liburu izendegia aztertuko dugu, etab.

Gai horri buruz ematen ahal dezaiguketen laguntza eta hintziak es-kertuko dizkiegu irakurleei. Zuen eskutitzen zain gelditzen gara. Dato-rreren ale batean «El libro de montaña en euskera» liburuz azalpen oso bat ematea espero dugu.

Bilbo, 1976.10.8.

R E S U M E N

Antxon Narbaiza (Goi Menditan Zehar) (Por las altas montañas).

Editorial GERO, colección KIMU SAILA, Bilbao, 1976. 153 páginas - 200 Ptas.

Se compone de una serie de temas sobre alpinismo: las montañas, el alpinismo clásico, los pioneros vascos, las expediciones vascas a los Andes 1967 y Tximist al Everest 1974 y otros.

Quizá sea el primer libro sobre alpinismo que se publica en euskera. ¿Qué se ha escrito en euskera sobre alpinismo? Estamos preparando un estudio completo para el que pedimos la colaboración de los lectores.